


kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al
duzu Donostia?

Agiti

Agiti Igeldo mendiaren itsas ertzean dago. Mendizorrotzeko tontorretik iparraldera. Donostiako arrantzaleentzat itsasoko badia zabal bat da *Agitiko senoa* deitzen dena, oriotarrentzat berriz, *Akitiko senotia* da. Badia honek bere kostaldean zabalune handi bat dauka, *Agitixabal* izena duen harri biribilezko plaia. Gaur egun leku hau desitxuraturik dago arrain-haztegi bat eraiki baitzen bertan, orain dela urte gutxi. Dena den, udatiarrek asko bisitatzen dute, eguzkia hartzeko leku paregabea baita. Eta nondik datorkio leku honi izen berezi hau? Mendi hegian dagoen *Agiti* izeneko baseritik. Joan den mendeko agirietan «Aguiti» edo «Agaiztegui» deitzen diote. Badirudi *Agiti* toponimo hau ez dela ongi ulertzen, izan ere, orain dela urte batzuk egunkari ezagun



Agitialdea. Ezkerretara, Agitiko senoa; bere gainean Antsoko muturra edo Muntoaundi. Eskuinera, Aintzilarreko barrutia, harlosaz mugatua.

batean agertu baitzen Donostian Haiti-ko hondartza genuela, jendea arroka hauetara joaten baitzen eguzkia hartzera. Alajaina! Karibeko uharte eder hura Igeldora lekuz aldatua! Badia edo seno honen ipar-ekialdera arrantzaleentzat *Muntoaundi* den, eta Igeldoko baserriarrentzat, berriz, *Antsoko muturra* deitzen den itsas-muturra dago. Karta

nautikoak egin zituztenak aldiz, gure kulturakoak izan ez eta «Punta de tierra blanca» deitu zioten, betiko izenei jaramonik egin gabe. Hona hemen elkarren artean zerikusirik ez duten hiru izen toki berdina izendatzeko; gizarte ezberdinetan bizi garela dirudi. *Agitiko senotik* hego-mendebaldera bada *Aintzilarre* izeneko beste leku bat. Izen honek artzain-

mundura garamatza. *Aintzi* Aginaga herriko baserria da eta hauek bere larreak dira. Hona etortzen ziren baserri hartatik artaldea bazkatu, garoa moztu, eta abereen azpiak egiteko belarra jasotzera. Honela, ikusi dugu Donostiako paraje txiki honek zein iharduera ezberdinak dituen.

ARGAZKIA ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE

SUKALDE



ALTZARIAK

sukaldeak galeriak

GIPUZKOA

Gipuzkoa Plaza 4 • ☎ 42 35 65

ELEKTRAGAILUAK


TB.

BIDEOA

El telar

OIHALDENDA

Alfonso VIII, 8
Tfnoa.: 42 42 10



SOINU ALAI

AKORDEOI ESKOLA - SOLFEOA

Esku soinua, pandereta edo trikitixa
ondo ikasteko hemen duzu zure aukera.

Kromatikoa
eta trikitixa

Madril hiribidea 24 • Tfnoa.: 47.00.01

Maiko Sport

KIROLAK

Segundo Izpizua 20
Tfnoa.: 29 35 45 • DONOSTIA